

Haritzalde Naturzaleen Elkartea

IKF. G-20.597.456


Anoeta pasealekua, 28-1.

20014 Donostia

T 900 110 111 / 609 420 438

Email: naturzale@haritzalde.org

<http://www.haritzalde.org>



HARITZALDE
Naturzaleen Elkartea

Gaia: *Hyla meridionalis*-en kontserbazioa. Obra ilegala Errotatxon

Idatzi honen bitartez Errotatxoko putzuaren ondoan egiten ari den Legearen kontrako obra salatu nahi dugu. Duela aste batzuk jada, Muebles DG industriaguneko H15 pabiloian kokaturik dagoen **ORIBAY GROUP** delakoak lanean hasi da Errotatxoko putzuaren atzealde-gainaldean, atxikitako argazkietan ikus daitezenez, 5 mko babes-gerrikoa ere ukituz eta kaltetuz. Guk dakigularik obrak ez dauka inolako baimenik eta lekukoek esan digute Donostiako Udaltzaingoa behin baino gehiagotan egon dela. Hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren derrigorrezko aldeko txostena eta dagokion baimena ere ez duela uste dugu. Mendizorrotzeko *Hyla meridionalis* populazioaren Kudeaketa Planaren urraketa zuzena da, 2001eko maiatzaren 28ko Foru Aginduaren Artikulu Bakarrarena alegia. Ondorioz, zigor-espeditentea irekitzea eta eremua ahalik eta azkarren leheneratzea eskatu nahi dugu. Kontuan izan behar da oso zaila dela neurtzea populazioari eragindako kaltea, igeltxoak loaldian edo oso aktibitate baxuan baitaude, gordeleku ezberdin anitzak erabiliz (ikus bestela joan den asteko argazkia Errotatxotik gertuko baratza batean). Beraz, obretako eremuan animaliak izango zirela segurutzat jo daiteke, ez ordea zenbatekoa. Gainera, etxola berri horren helburua materiale oso arriskutsuak, lehergarriak edo behintzat sukoiak, bere baitan gordetzea da. Edozein kasutan ere, esan bezala, Kudeaketa Planaren eta ondorioz Natura Kontserbatzeko Legearen urraketa zuzena da.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DU

- **Baieztatzea Oribay Group izeneko enpresak salturiko lanak egiteko Donostiako Udalaren obra-baimena eskatu dion eta eman zaion ala ez.**
- **Baimena baldin badu hura luzatzeko oinarria duen txosten tekniko-juridikoaren kopia.**
- **Baimenik ez baldin badu zigor-espeditentea irekitzea Udal Ordenantzak urratzeagatik.**
- **Kaltetutako eremua ahal bezain pronto leheneratzea.**

Eta hau jasota gera dadin eskabide hau sinatzen du.

Donostian, 2015eko abenduaren 7an.

Antonio Santos Penillas
Haritzalderen izenean